



XAIKO taldea Aguayiko eta Xabi Arakama musikarien proiektua 2013an jarri zen martxan. Musikariak euren artean sarri eta luze hitz egiten dute, soinu probetan, zuzenekoak jo ondoren eta abar. Horrelako egoera batean eta elkarri mila aldiz aipatu eta gero ea noiz joko zuten batera gehi beste hitz aspertuak, Xaiko taldea da horren emaitza. Behin entsegu-bilera bukatuta ikusirik bi aldeetatik zerbait probetxugarria ateratzeko nahikoa kemen zutela eman zitzaion hasiera Xaiko taldeari. Gainontzeko taldekideen fitxaketa ez zen zaila izan. Xaiko taldea zortzi lagunek osatuko dute, hala nola: David Aguayo (Kaos Etiliko, Kaotiko), Xabi Arakama (Trikizio, Ze Esatek!, Obrint Pas), Alfonso Aguayo (Desterrados, Kaos Etiliko, Kaotiko), Haitz Bujanda (Segada, Garagardo Gura, Arrebote), Asier J. Sánchez Rexach (Potato, Gasteiz Big Band, EHME Orkestra Sinfonikoa), Xabi Zelaia (Stupenda Jones). Mikel Sanz (Betagarri), Joel Markez Sanchez (The Montons).

Xaiko taldearen "Therapy" diskoa 2014ko urtarrilaren 10ean hasi zen grabatzen eta otsailaren 14an bukatu Higain estudioetan (Usurbil, Gizpuzkoa) Haritz Harreguy teknikariarekin. Musikari-laguntzaileen grabaketak, bestalde, Fontak eta Franek egin dituzte Itxura estudioetan (Altsasu, Nafarroa). Musika eta hitz guztiak, salbuepenak beharaxeago zehaztuko dira, Aguayikok eta Xabi Arakamak egin dituzte. Aitor Antruejok egin ditu gitarren konponketak. Diseinuak Alfonso Aguayok eta Joel Marquezek egin dituzte. Argazkiak Angel Mendezenak dira. Diskoak hainbat laguntzaile izan ditu. "Nazioen mundua" abestia Evaristok ahotsa sartu du eta Tomas Lizardik mandolina. "Guanyarem demà" abestia Xabi Sarriak egin du letra eta baita ahotsa sartu ere eta Ion Garmendiak alboka jo du. Dj. Plan B musikariak "Palestina" eta "Guanyarem demà" abestietan skratxak eta sanplerrak sartu ditu. "D-z berdin" abestiaren letra Eneko Bolik idatzi du. Iker Zubeldiak "Txortaspeed" abestiaren letra egin du. Juanrak (KOP) "Herri harresia" abestia kantatu du. Tomas Lizardik idatzu du "Zure begiek" abestia.

Xaiko taldearen lehen diskoaren izenburua "Therapy" da. Xaiko taldeak egiten duen musika triki-punk-jaia da. Punka da ildo nagusia baina rocka, ska eta hardcore ukituekin. Soinu hauei erantsi behar zaie trikiak eskaintzen dituen baliabideak musika horri atxekitzeko melodia eta xarma. Punka eta rocka nahastuta modu egokienean, taldearen beste zutabe batera eramango gaitu, jaiaren muinera. Triki-punk-jaia da Xaiko. Musikaren osagarri zuzena dira hitzak, eta Xaiko taldeak bikain astinduko ditu gizarte kapitalistaren barrenak. Zuzen, indartsu eta garbi mintzo dira, inolako galgarik gabe. Kritika soziala eta politikoa triki-punk-jaiaren trinkotasunarekin. Alaitu eta pentsarazi musikaren bidez.

1.- Xaiko taldea, izen handiko oilarrak oilategi berean. Musikari asko eta toki askotatik etorritakoak gainera. Agenda nola konponduko duzue?

Duela urte asko elkar ezagutzen dugun oilarrak gara gu, oso ezberdin diren bi mundu musikaletik gatozenak. Orain arte, bakoitza bere oilategian egon da Xaiko sortu dugun arte, bertan eskuz-esku lan egiten dugularik. Ilusioz hartu dugu eta gogo handiarekin gaude denok ondo pasatzeko eta euskal musikagintzari gauza berriak emateko. Nahiz eta oilar nagusiak eta oilategi honetan ezinbestekoak Aguayiko eta ni neu izan, taldekide denak bat eginik funtzionatzen dugu.

Agendaren arazo hori egongo dela zihur geunden hasieratik eta garbi genuen datak koinzidituko zutela. Oraindik ez da gertatu eta gertatzen den momentuan pentsatuko dugu zer egin, eta zihur gaude alde horretatik gure bulegoak ondo kudeatuko duela gai hori inor kaltetuta atera gabe.

2.- Xaiko taldearen sorkuntzan zerk izan du lehenetsua? Musikaren festa? Geldirik ez dakizuelako egoten?

Lehenetsua geure arteko giro ona lortzea izan da. Musika beti da festa, nahiz eta lan asko egin beharra eduki abestiek konposatzen, grabaketa eta zuzenekoak prestatzen eta beste mila gauzetan. Baina horrek beti bere fruituak ematen ditu, eta guk fruitu horiek kontzertuak ematean sentitzen dugun emozio, urduritasun, alaitasun, esker on, adrenalina, sentimendu eta horrelako sensazioekin jasotzen dugu. Hori da gure lanaren fruitu eta esker ona.

Eta noski, geure bizitza osoa musika munduan murgilduta egon eta gero, beti gaude gauza berriak pentsatzen. Xaiko horren isla da: gure beste proiektuetaz gain, beti gaude gauza berriekin buruan eta musika estilo ezberdinetatik gatozen bi zoro geldiezin elkartuta gero, hauxe sortu dugu.

3.- Xaiko taldearen "Therapy" diskoak hitz gordinak ditu eta musika indartsua. Proiektuaren izenbesteko osagaiak?

Bai, argi daukagu gure hitzak gaur egun bizi dugun egoeraren isla izan behar direla. Gure egonezinen eta kezken erakusleho bat gehiago. Horixe da gelditzen zaigun bide bakarretako bat jasaten ari garen gehiegikeria eta injustiziaz salatzen. Egund bizi dugun egoera oso gordin da benetan, eta nahiz eta musika entzutean edo kontzertu bat ikustean momentu batez gure errealitate aldentzeko ere balio dezaken, guk argi dugu gure hitzek ikus-entzuleari zer pentsatu emango diola eta bizi dugun egoera honetaz hobeto jabetzen lagunduko diola.

Musika ere ildo horretatik doa, indartsua eta zuzena. Konposatzeko garaian oso garrantzitsua ikusi genuen abesti melodikoak izan behar zirela, eta era berean indartsuak, gitarra bortitzekin, bateria eraginkorrekin eta errez gogoratzeko doinuak.

Aguayiko: ahotsa

Xabi Arakama: trikia eta koruak

Joel Marquez: gitarra eta koruak

Aguayo: gitarra

Xabier Zelaya: baxua

Haitz Bujanda: bateria

Asier Sanchez: tronpeta

Mikel Sanz: tronboia

ritxi aizpuru (2014ko martxoaren 18)



baga-biga musika ideiak
telf. 618 072 076 / 026
www.baga-biga.com / info@baga-biga.com